

BCAM Naukas Pi Eguna 2026

Matematika ohiko osagaia duten tailerrak eta hitzaldiak

Martxoaren 13an, ostirala, Bizkaia Aretoa-EHUn egingo den BCAM Naukas Pi Eguna 2026 jardunaldiaren zazpigarren edizioak matematikaren alderik jostariena eta erakargarriena erakutsi nahi du tailer eta hitzaldi laburren bidez

Ekimena Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak, Basque Center for Applied Mathematics-ek (BCAM) eta Naukas dibulgazio zientifikoko plataformak antolatu dute

Bilbon, 2026ko martxoaren 9an. Pi (π) zenbakiak 4.000 urte baino gehiago daramatza jakingura, galderak eta erronka matematikoak pizten. Egutegian ere data propioa du, hain da handia bere ospea: martxoaren 14a, euskaraz eta ingelesez bere lehenengo digitikuekin kointziditzen duen zenbakia $-3/14-$. 1988an Larry Shaw fisikariaren ekimen gisa hasi zena mundu mailako ospakizuna bihurtu da, eta 2019an UNESCOk Matematikaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen.

Urteurrena ospatzeko, [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#), [Basque Center for Applied Mathematics-ek \(BCAM\)](#) eta [Naukas](#) zientzia dibulgaziorako plataformak **BCAM Naukas Pi Eguna** jardunaldi matematikoa antolatu dute beste behin Bilbon; diziplina horren alderik sortzaileena eta hurbilena ezagutzeko aukera ederra.

Aurten zazpigarren edizioa beteko duen ekitaldia datorren ostiralean egingo da, martxoaren 13an, Bizkaia Aretoa-EHU eraikinean. BCAM Naukas Pi Eguna 2026 jardunaldiak gazteei zein helduei zuzendutako egitaraua izango du. Bertan, geometria, estatistika edo topologia bezalako matematikako adar bereizgarrienetako batzuk ikertzen eta zabaltzen dituzten profesionalak izango dira.

Antolatutako jarduerak

Goizean zehar hainbat tailer matematiko egingo dira lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat, zientzia horrekiko interesa pizteko xedearekin. Guztira, 16 ikastetxetako 600 ikasle inguruk hartuko dute parte.

Beste proposamen batzuen artean, tailerretan parte hartuko dutenek papiroflexia edo flexagonoen figurak eraiki, museo seguruena nola diseina daitekeen deskubritu – matematikaren ikuspuntutik behintzat –, jolas erraldoiekin jardun edo, *Star Wars* saga zinematografikoan inspiratuta estatistikaren zirrikitu batzuk ikasi ahal izango dituzte.

HitzaIdiak Pi klabea

Arratsaldean, jardunaldiak 15 minutuko sei hitzaIdi labur eta dinamikorekin jarraituko du, Pi zenbakiak dituen ezaugarri eta eguneroko bizitzarako erabilpen batzuk ezaIutarazteko. Jendaurreko hitzaIdi zientifiko horiek Bizkaia Aretoa-EHUko Mitxelena aretoan egingo dira, eta euskal nahiz estatuko zentro akademiko eta ikerketa-zentroetako ikertzaileek emango dituzte.

Lehenengo hitzaIdian, **Pablo Fernández**ek (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa) matematikaren historiako lankidetza liluragarrienetako bat aipatuko du, *Infinitoa ezaIutzen zuen gizona* (2015) filma inspiratu zuena: Srinivasa Ramanujan matematikari autodidaktaren eta G.H. Hardy akademikoaren artekoa. Ondoren, **José Antonio Pradok** (Sevillako Unibertsitatea) Pi zenbakiari moIorroa kentzera gonbidatuko du publikoa; izan ere, Pradok ohartarazi duenez, arrazoiak badaude bere "itxurakeriaz" susmatzeko.

Ondoren, **Leticia Hernandok** (EHU) inurriek, algoritmoek eta gizakiok konpartitzen dugun nolakotasun bati buruz hitz egingo du: optimizatzeko gaitasuna. **Irene González**ek (BCAM) geometria ez-euklidearretan jarriko du arreta: intuizioa desafiatu dezaketen arren, inguratzen gaituen mundua hobeto deskribatzeko eta ulertzeko aukera ematen dute.

Bestalde, **Judith Rivasek** (EHU) matematikaren eta dantzaren artean dagoen harremana esploratuko du bere hitzaIdian, euskal dantzak adibide gisa jarritz. Amaitzeko, **Tomás Teijeirok** (BCAM) datuen metaketa masiboaren eta arrazoiketaren benetako jauziaren artean dagoen arrakala aztertuko du.

HitzaIdietarako sarbidea

Arratsaldeko hitzaIdiak sarrera librekoak dira, eserlekuak bete arte. Bizkaia Aretoa-EHU eraikinera hurbiltzerik ez duenak zuzenean jarraitu ahal izango ditu *streaming* bidez Katedraren [YouTube](#) kanalean. HitzaIdiei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [BCAM Naukas 2026ko hitzaIdi-egitaraua](#).

BCAM Naukas Día de Pi 2026

Conferencias y talleres con un denominador común: las matemáticas

La séptima edición de la jornada BCAM Naukas Día de Pi 2026, que tendrá lugar este viernes 13 de marzo en el Bizkaia Aretoa-EHU, busca mostrar el lado más lúdico y atractivo de las matemáticas a través de talleres y conferencias breves

La iniciativa está organizada de manera conjunta por la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco, el Basque Center for Applied Mathematics (BCAM) y la plataforma de divulgación científica Naukas

Bilbao, 9 de marzo de 2026. El número pi (π) lleva más de 4 000 años despertando curiosidad, preguntas y desafíos matemáticos. Su popularidad es tal que hasta cuenta con fecha propia en el calendario: el 14 de marzo, cifra -3/14- que coincide que sus primeros dígitos en euskera y en inglés. Lo que comenzó en 1988 como una iniciativa del físico Larry Shaw se ha convertido en una celebración de alcance global, y en 2019 la UNESCO declaró esa jornada Día Internacional de las Matemáticas.

Para conmemorar la efeméride, la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco \(EHU\)](#), el Basque Center for Applied Mathematics ([BCAM](#)) y la plataforma de divulgación científica [Naukas](#) organizan un año más la jornada matemática **BCAM Naukas Día de Pi** en Bilbao, una gran oportunidad para celebrar el lado más creativo y cercano de esta disciplina.

El evento, que este año cumple su séptima edición, tendrá lugar el próximo **viernes 13 de marzo en el edificio Bizkaia Aretoa-EHU**. BCAM Naukas Día de Pi 2026 contará con un programa dirigido a público joven y adulto, en el que participarán profesionales de las matemáticas que investigan y divulgan sobre algunas de sus ramas más características como la geometría, la estadística o la topología.

Actividades programadas

Durante la mañana se desarrollarán una serie de talleres matemáticos dirigidos a estudiantes de primaria y secundaria con el objetivo de despertar su interés por esta ciencia. En total, participarán alrededor de 600 alumnos y alumnas procedentes de 16 centros educativos.

Quienes participen en los talleres podrán construir figuras de papiroflexia o flexágonos, descubrir cómo se puede diseñar el museo más seguro -al menos desde el punto de

vista matemático-, jugar con juegos gigantes o aprender algunos entresijos de la estadística inspirados en la saga cinematográfica *Star Wars*, entre otras propuestas.

Conferencias en clave de Pi

Por la tarde, la jornada continuará con seis **conferencias breves y dinámicas, de 15 minutos de duración**, en las que se dará a conocer algunas propiedades y aplicaciones del número Pi en la vida cotidiana. Estas charlas científicas, abiertas al público, se celebrarán en la sala Mitxelena del Bizkaia Aretoa-EHU y correrán a cargo de investigadores e investigadoras procedentes de centros académicos y de investigación del ámbito vasco y estatal.

Durante la primera charla, **Pablo Fernández** (Universidad Autónoma de Madrid) abordará una de las colaboraciones más fascinantes de la historia de las matemáticas, y que inspiró la película *El hombre que conocía el infinito* (2015): la relación entre el matemático autodidacta Srinivasa Ramanujan y el académico G.H. Hardy. A continuación, **José Antonio Prado** (Universidad de Sevilla) invitará al público a desenmascarar al número Pi ya que, según advierte, hay motivos para sospechar de su "impostura".

Después, **Leticia Hernando** (EHU) hablará sobre una cualidad que compartimos las hormigas, los algoritmos y los seres humanos: la capacidad de optimizar. Tras ella, **Irene González** (BCAM) pondrá el foco en geometías no euclidianas que, aunque puedan desafiar la intuición, permiten describir y comprender mejor el mundo que nos rodea.

Por otra parte, **Judith Rivas** (EHU) explorará la relación que existe entre las matemáticas y el baile a lo largo de su intervención, poniendo como ejemplo las danzas vascas. Para finalizar, **Tomás Teijeiro** (BCAM) analizará la brecha existente entre la acumulación masiva de datos y el verdadero salto del razonamiento.

Acceso a las conferencias

Las conferencias de la tarde son de acceso libre hasta completar aforo. Quien no pueda acudir a Bizkaia Aretoa-EHU de manera presencial, podrá seguirlas en directo vía *streaming* a través del [canal de YouTube](#) de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU. Para más información sobre las charlas, consulta el [programa de conferencias BCAM Naukas 2026](#).